



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

---

**ARAUTEGI AKADEMIKOA  
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN  
GRADUKO IKASKETAK  
2018-2019 IKASTURTEA**

---

*2018ko urriaren 3an Gradu Lan Taldeak onartua*

## AURKIBIDEA

I.	SARRERA.....	3
II.	KONTZEPTUAK .....	3
III.	GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK .....	5
IV.	SARBIDE ETA ONARPENA GRADUKO IKASKETETAN .....	6
V.	MATRIKULA .....	8
VI.	IKASLEAK BAJA ESKATZEA .....	10
VII.	ESKOLA EGUTEGIA .....	10
VIII.	IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK....	11
IX.	MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA.....	13
X.	MATRIKULAREN ORDAINKETA.....	14
XI.	IKASKETETARAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK .....	15
XII.	ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK.....	16

***I. ERANSKINA***- Oinarrizko Formazioko Materiak

***II. ERANSKINA***- Lanbide Heziketako kredituak aitortzea

***III. ERANSKINA***- Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik graduko ikasketetan kredituak aitortzeko arautegia.

## I. SARRERA

Graduko unibertsitate-ikasketen jarduera akademikoa urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren babespean garatzen ari da, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak MONDRAGON UNIBERTSITATEAri homologatu dizkion ikasketa-planen arabera.

Fakultate honek 2009-10 ikasturtean ekin dio Graduko ikasketak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokiturik ezartzeko prozesuari. Prozesu hori honako egutegi honen arabera garatu da:

<b>Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko Ikasketen Ezarpena</b>					
Ikasketak/Ikasturtea	2009-2010	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14
Graduko Ikasketak	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea	1. Ikasturtea
Graduko Ikasketak		2. Ikasturtea	2. Ikasturtea	2. Ikasturtea	2. Ikasturtea
Graduko Ikasketak			3. Ikasturtea	3. Ikasturtea	3. Ikasturtea
Graduko Ikasketak				4. Ikasturtea	4. Ikasturtea

## II. KONTZEPTUAK

### UNIBERTSITATE-IKASKETA OFIZIALEN EGITURA

Abenduaren 21eko Unibertsitateei buruzko 6/2001 Lege Organikoko 37. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak eraldaturik) xedatu eta 1393/1997 Errege Dekretuak garatutakoaren arabera, unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru ziklotan egituratzen dira, hots: GRADUA, MASTERRA eta DOKTORETZA.

**GRADUA:** unibertsitate-ikasketen oinarrizko zikloa da hau eta bere helburua da ikaslea jarduera profesionalean aritzeko prestakuntza orokorraz janztea. Graduko tituluak 240 ECTS kredituk osatzen dituzte, lau ikasturte akademikotan banaturik, eta bertan bilduko da ikasleak jaso beharreko prestakuntza teoriko eta praktikoa: ezagutza adarreko oinarrizko alderdiak, materia derrigorrezko eta hautazkoak, mintegiak, kanpo-praktikak, gradu amaierako lana edota bestelako prestakuntza-jarduerak.

**MASTERRA:** masterreko ikasketen helburua da ikasleak espezializazio edo ikerkuntzarako prestakuntza aurreratua hartzea. Gutxienez 60 ECTS kredituk osatzen dituzte.

**DOKTORETZA:** doktoretzako ikasketen helburua ikaslea ikerkuntza-teknika aurreratuetan janztea da; ziklo honetan sartzen da doktoretza tesia egin eta aurkeztea. Tesia ikerkuntzako jatorrizko lana izango da.

## **UNIBERTSITATE ALORREKO HAINBAT KONTZEPTU INTERESGARRI**

**ECTS KREDITUA:** ikasketa plan jakin batean programaturik dauden helburuak erdiesteko ikasleek egin behar duten guztirako lan-karga edo -bolumena neurtzeko onartu den neurria da ECTS (*European Credit Transfer System*) kreditua. ECTS bat 25 lanorduren pareko da, ikaslearentzat; ikasturte akademiko bakoitzak 60 ECTS dituenek, ikaslearen 1.500 lanordu dira; ordu horietarik batzuk presentzialak izango dira, eta beste batzuk, ez-presentzialak.

**KONPETENTZIAK:** prestakuntza-programen diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa gidatzen dituen erreferentzia laborala dira konpetentziak, eta bi motatakoak izan daitezke:

- a) Konpetentzia Espezifikoak: lan-esparruetako profesionalek bereizgarri dituzten lan-funtzioak identifikatu eta horietan oinarriturik definitzen dira konpetentzia espezifiko edo profesionalak. Horiek kontuan hartuta prestatu ohi dira HUHEZItik irtendako ikasleak, bakoitzak aukeratu duen lan-esparruan.
- b) Zeharkako Konpetentziak: hainbat egokiera eta testuingurutan (laboralean, akademikoan, sozialean, etab.) baliagarriak izanik, gizakia gizakitzat garatzeko eta lanean era hobezinean aritzeko prozedurak, jarrerak eta ezagutzak biltzen dituzte zeharkako konpetentzia hauek. Horien artean honako hauek aipatuko ditugu: Talde-lana, komunikazio eraginkorra, arazoak konpontzera orientaturiko pentsamendua, ikasten ikastea, erabakiak hartzea, lidergoa, lanaren ikuspegi globala, ekintziletasuna eta berrikuntza, eta espiritu kritiko eta konpromiso etikoa.

**OINARRIZKO FORMAZIOKO MATERIAK.** Espainiako unibertsitate eremuko Gradu Ikasketa Plan guztiek Gradu titulu horri dagokion ezagutza adarretako oinarriko prestakuntzako 60 ECTS kredituk osatzen dituzte, ezagutza horiek ikasketa planeko lehen bi ikasturteetan ematen dira. HUHEZIk egun dituen Gradu hiru tituluak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien ezagutza adarrekoak direnez, horietako oinarriko formazioko materiak bertan daude kokaturik.

**DERRIGORREZKO FORMAZIOKO MATERIAK:** materia hauek Fakultateak komuntzat eta derrigorrezkotzat ezarri ditu ikasketa beretan diharduten ikasleentzat.

**HAUTAZKO MATERIAK:** materia hauek ikasleak aukeratu ahal izango ditu, dagokion titulazioan eskaintzen direnen artean.

Ikus-entzunezko Komunikazioa titulazioan, materia horiek hirugarren eta laugarren ikasturteetan sartzen dira.

**KANPO PRAKTIKAK:** praktikak egitea derrigorrezkoa izango da, eta Fakultatearekin hitzartutako erakunde jakin batean egingo dira.

**GRADU BUKAERAKO LANA:** Arautegi honetan sartzen diren ikasketa guztien bukaeran Gradu Amaierako Lana egin beharra dago, eta kasuan kasuko titulazioko Memoria Justifikatzailean Materia horri dagokion fitxan biltzen diren zehaztapen eta edukien arabera egingo da.

**HIZKUNTZAK HUHEZIN:** HUHEZI fakultateak bere printzipioetan argi adierazten du euskararekin duen konpromisoa. Euskara da HUHEZI fakultatearen komunikazio hizkuntza nagusia, instrukziozein harreman-hizkuntza nagusia, bai gela barruan, bai gelatik kanpo. Karreraren helburuen artean dago ikasleak prestatzea haien lana euskaraz kalitatez egin ahal izateko, baina baita, aldi berean, euskararen alde sentibilizatzeko ere; hala, ikasleak beren lantoki eta ingurune hurbiletan euskararen sustatzaile izatea da jomuga.

Horretarako, HUHEZI fakultateak hizkuntza guztiekiko jarrera positiboak sustatu nahi ditu, bai elebidun egiten gaituzten euskara eta gaztelaniarekiko, baita, profil akademikoak eta profesionalak eraginda, ingelesarekiko ere. Hori dela eta, hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, hurbiltasuna, erabilpena sustatu eta bultzatuko dira, eta ikasleei horren araberrako jarrera eta portaerak eskatuko zaizkie.

### III. GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK

Ondoko taulan, laburbildurik, jaso ditugu titulu bakoitzeko Graduko ikasketa planaren funtsezko ezaugarriak. Honakoak zehazten ditugu bertan: ikasketen iraupena; tituluak eskatzen dituen kredituen guztirako kopurua eta materiak nola banatuak dauden; tituludunei eskudantzia profesionalak aintzat hartuko zaizkien ala ez, eta tituluak zein ezagutza-adarretakoa den.

Graduko ikasketak	Haur Hezkuntzan	Lehen Hezkuntzan	Ikus-entzunezko Komunikazioan	
			2009 Plana	2014 Plana
<b>MATERIA MOTA</b>	<b>ECTS</b>	<b>ECTS</b>	<b>ECTS</b>	
<b>Oinarrizko formazioa</b>	100	60	60	60
<b>Derrigorrezkoak</b>	---	---	134	129
<b>Didaktiko-Diziplinarra</b>	60	100	--	--
<b>Hautazkoak</b>	30	30	16	15
<b>Praktikak</b>	44	44	12	12
<b>Gradu Amaierako Lana</b>	6	6	18	24
<b>GUZTIRA</b>	<b>240</b>	<b>240</b>	<b>240</b>	<b>240</b>
<b>IKASKETEN IRAUPENA</b>	<b>4 ikasturte</b>	<b>4 ikasturte</b>	<b>4 ikasturte</b>	
<b>ESKUDANTZIA PROFESIONALIK</b>	<b>BAI <sup>(1)</sup></b>	<b>BAI <sup>(2)</sup></b>	<b>EZ</b>	
<b>TITULUA ZEIN EZAGUTZA-ADARRETAKOA DEN</b>	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	

<sup>(1)</sup> 3854/2007 ECI Agindua, abenduaren 27koa (BOE 07.12.29)

<sup>(2)</sup> 3857/2007 ECI Agindua, abenduaren 27koa (BOE 07.12.29)

## IV. SARBIDE ETA ONARPENA GRADUKO IKASKETETAN

### A. Unibertsitatean estreinakoz sartzen diren ikasleen sarbidea.

GRADUko ikasketetan sartu ahal izango dira hurrengo baldintzetako bat betetzen duten ikasleak:

- LOGSE Batxiler edo titulu baliokidea dutenak, Unibertsitatean sartzeko probak gainditu badituzte.
- Goi Mailako Lanbide Heziketako titulua dutenak.
- Indarreko legeria gorabehera, Batxiler edo Goi Mailako Lanbide Heziketako tituluaren baliokidea dutenak, atzerrikoa denean.
- 25 edo 45 urtez gorako pertsonentzako sarbide-probak gainditu dituztenak.
- Unibertsitate ikasketak hasita dituzten ikasleak edo unibertsitateko titulazioa daukatenak.

### Sartzeko lehentasuna izango dute:

- LOGSE Batxiler titulua dutenek, Unibertsitatean sartzeko probak gainditu badituzte.
- Ondoren zehazten diren adarretako Goi Mailako Heziketa Ziklo bat gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleek. Lanbide-heziketako titulua eta ikasi nahi den gradu-titulazioetako ezaguera-adarren arteko loturaren arabera, lehentasunezko sarbidea izango dute honako titulu hauek:

ZEIN GRADUTAN SARTU NAHI DUTEN IKASLEAK	GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN FAMILIAK	GOI MAILAKO TITULUEN ZERRENDA
<b>IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN</b>	Arte Grafikoak  Irudia eta Soinua	- Argitalpen Diseinua eta Produkzioa. - Arte Grafikoen Industrietako Produkzioa.  - Irudia - Soinua - Ikus-entzunezkoen, Irratiaren eta Ikuskizunen produkzioa - Ikus-entzunezkoen eta Ikuskizunen Errealizazioa

Sarbide-nota kalkulatzeko irizpideak:

Ikasleak onartzeko orduan irizpide hauen arabera egingo da hautapen-prozesua:

**1.- Batxiler titulua izan eta selektibitatea gaindituta dutenak (baldin eta ez badute hasi ikasketa unibertsitariorik):**

- Selektibitatea aurreko ikasturteetan gainditu dutenen kasuan, onarpen-nota honakoa izango da: Batxilergo notaren % 60 + Selektibitateko Fase Orokorren notaren % 40
- Selektibitatea aurten gainditzeko dutenen kasuan, onarpen-nota honela kalkulatu da: Batxilergo notaren % 60 + Selektibitateko Fase Orokorren notaren % 40 +(a x 0,2)+(b x 0,2)

\*a eta b: fase espezifikoan gainditutako ikasgaietako 2 notarik onenak

\*\*0,2: HUHEZIK Batxilergoko ikasgai guztiei 0,2-ko ponderazioa emango die, ondorengo taulan azaltzen den moduan:

	BATXILERGOKO IKASGAIAK													
LEHEN HEZKUNTZA														GRADUAK
HAUR HEZKUNTZA														
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA														

\*0.2



Biologia  
 Lurraren eta ingurumenaren zientziak  
 Ikus-entzunezko kultura  
 Marrazketa artistikoa II  
 Marrazketa tekniko II  
 Diseinua  
 Enpresaren ekonomia  
 Fisika  
 Artearen historia  
 Geografia  
 Grekoa II  
 Musikaren eta dantzaren historia  
 Latina II  
 Literatura Unibertsala  
 Matematika II  
 Gizarte Zientziei aplikaturiko matematika II  
 Kimika

**2.-Goi-mailako Teknikari titulua edo Goi-mailako Kirol Teknikari titulua dutenak:** notaren arabera.

**3.- 25 urtetik gorako sarbide-proba** gainditu dutenak: sarbide-probaren notaren arabera.

**4.- 45 urtetik gorako sarbide-proba** gainditu dutenak: sarbide-probaren notaren arabera.

**5.- Unibertsitate-titulua** dutenak: espediente akademikoaren batez besteko nota.

Era berean, Unibertsitateak ezarritako ohiko epean izena eman duten ikasleei lehentasuna aitortuko zaie, ezohiko epean izena eman dutenen aurretik.

## **ARAUTEGI AKADEMIKO IRAGANKORRA, HUHEZI-KO DIPLOMATURA ETA LIZENTZIATURETAKO IKASLEENTZAT**

**Lehena.** Ikasleek hala aukeratu dutelako edo berariaz ezarritako iraute-arauek xedatuta, Gradura igaroko diren HUHEZIKo Diplomatura eta Lizentziaturetako ikasleei aintzat hartuko zaizkie lehenagoko titulazioetan gainditu dituzten gaitasun eta kredituak, titulazio memorietan jasotako egokitzapen taulen arabera.

**Bigarrena.** Ikaslea ezingo da batera matrikulatu Diplomaturan edo Lizentziaturan eta Graduan.

### **V. MATRIKULA**

1. Matrikula-unitate administratiboa materia da.
2. Ikasturte osoko matrikula 60 ECTS da.
3. **Ikasle berriak:** nahitaez, lehen ikasturteko kreditu guztien matrikula egin behar dute. Hala ere, hezkuntza alorreko premia bereziak eraginda, edo ikaslearen egokierarekin loturiko gorabeherek eraginda, eta ikasleak berak hala eskatuta, matrikulako kreditu kopurua orokorki xedatutakoa baino urriagoa izatea onartuko du Graduako Batzordeak.
4. **Hurrengo matrikulak:** Arautegi honetako VIII. atalean xedatzen denez ikasten jarraitzeko baldintzak betetzen baditu, ikasleak gutxienez 30 ECTSko matrikula egin beharko du, non eta titulazioa burutzeko edo mailaz igarotzeko geratzen zaion kreditu kopurua arauz xedatutako gutxienera baino txikiagoa ez den; horrela izatekotan, kreditu denetan matrikulatu beharko du. 30 eta 60 ECTSko matrikula partziala egiten duten ikasleek, hezkuntza proiektuan xedaturiko urteko sekuentzia bete beharko dute.
5. Ikasleak matrikulatuta dagoen kreditu kopuruen arabera ordaindu beharko ditu matrikula-tasak.

### **6. KREDITUAK AITORTZEAZ**

- Hauxe esan nahi du kredituak aitortzeak: ikasleak Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako ikasketa ofizialetan eskuratutako kredituak, ikasten ari den Graduako tituluan konputatuko dira (kasuan kasukoetan), titulu ofiziala eskuratzeko helburuarekin.

Espedientea beste edozein unibertsitatetik Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera lekualdatzekotan, edo, Mondragon Unibertsitatean bertan, irakaskuntza ofizialak aldatzekotan, **oinarrizko formazioko kredituak automatikoki aitortuko zaizkio ikasleari**, baldintza hauek betetzen badira:

- Gizarte eta Zuzenbide Zientzia adarrekoak eta Hezkuntzako materiak izatea kredituak.
  - Baliokideak izatea bai edukietan eta baita kreditu kopuruan ere.
- **Gainerako kredituak Fakultate honek aitortu ahal izango dizkio** ikasleari, berak aurreko ikasketetan gainditutako materietako gaitasun eta ezagutzen eta HUHEZIKo Graduan aurreikusita daudenen arteko egokitzapenaren arabera.



- **Lanbide Heziketako goi mailako teknikarien tituluak aitortzeko**, honako hauek hartuko dira egokitzapena, gaitasunei, ezagutzei eta ikaskuntzako emaitzei dagokienez. Zehazki honako kontuan: graduako tituluko irakasgaien eta goi teknikarien tituluko modulu edo irakasgaien arteko egokitzapena. Araudi honetako II. Eranskinean zehazten dira aitortuko diren kreditu eta ikasgaiak.
- Aurreko paragrafoetan jasotakoaren arabera aintzat harturiko kredituak zenbakizko noten bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **7. KREDITUEN TRANSFERENTZIA**

- Kredituen transferentzia terminoak haxe adierazten du: ikasleak Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako ikasketa ofizialetan eginiko ikasketei dagozkien kredituak, titulu ofizial bat erdiestera bideratu ez badira, ziurtagiri akademiko ofizialetan sartzea.

## **8. ESPEDIENTE AKADEMIKOA**

- Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, titulua eskuratzeko jomugaz, Mondragon Unibertsitatean zein beste edozein unibertsitatetako **irakaskuntza ofizialetan eskuratutako kreditu guztiak** jasoko dira, hala **kreditu transferituak**, nola **aitortuak** zein **gaindituak**, aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, eta kasuan-kasuan zein motatakoak diren adieraziko da. Aitorturiko kredituak direnean, lehenagoko ikasketei dagozkien datu hauek emango dira: unibertsitatea(k), ikasketa ofizialak eta zein ezagutza-adarretakoak diren; gaindituriko ikasgai edo materiak eta haien kreditu kopurua, eta ikasleak erdietsitako kalifikazioa.
- HUHEZIK, Espediente Akademikoarekin batera, gehigarri bat emango dio ikasleari, non aitortzen zaion unibertsitate esparruko zein jardueratan esku hartu duen (jarduera akademiko hutsetatik at). Kontuan hartuko dira: Kontseilu Errektoreko partaide izatea, ordezkari izatea, HUHEZIK antolaturiko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea —Truke programa, Literatur Astea, Komunikaldiak, Zinema Saioak, etab.—.
- Espediente akademikoa jasotzeko dagokion tasa ordaindu beharko du ikasleak. Tasa hori Eusko Jaurlaritzak zehazten du urtero, Goi-mailako hezkuntza zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko gainontzeko prezioekin batera. Graduako azken mailako ikasleei ekaineko kuotarekin batera kobratuko zaie tasa horri dagokion kopurua.

## **9. TITULUAREN GEHIGARRI EUROPARRA**

Dokumentu ofizial hori Europan Goi Mailako Hezkuntzako titulazioen gardentasuna areagotzeko definitu eta diseinatu zen. Gehigarri horren bitartez, titulazioak aintzat hartzea eta ikasleen mugikortasuna erraztuko da, baita ikasleak Europako lan merkatuan sartzea ere.

Tituluaren Gehigarri Europarra eskatu ahal izango dute unibertsitate ikasketa ofizialak burutzen dituzten ikasleek; eskaera egingo da titulu ofiziala eskatzen den une berean edo

## **10. MATRIKULA EZEZTATZEA**

### **Kontzeptua**

Idazkaritza Akademikoari eginiko eskari-agiri bidez, matrikula ezeztatzea eskatu ahal izango du ikasleak; eskaera hori ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehen egin beharko da.

Matrikula formalizatzeko exijitzen diren baldintzarik betetzen ez direnean edo datuak nahiz dokumentazioa faltsutu direnean, ezeztapena ofizioz egingo da.

### **Ondorioak**

Ikasleak berak matrikula ezeztatzea eskatzen duenean edo matrikula ofizioz ezeztatu denean, ikasleak utzi egingo dio Fakultate honetan matrikulaturik egoteari; beraz, ezingo zaio egin Ikastetxe honekiko lotura duela egiazta lezakeen inolako agiririk.

Ezeztapen unera arte ikasleak ordainduriko matrikularen prezioa ez zaio inola ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden gainerako kopuruaren kobrantza bertan behera utziko da.

## **VI. IKASLEAK BAJA ESKATZEA.**

### **1. BORONDATEZ ESKATZEA BAJA**

Ikasleak Fakultatean baja eman nahi duenean, idatziz jakinarazi beharko dio Idazkaritza Akademikoari.

### **Ondorioak**

Idazkaritza Akademikoak ikasleak ikasturtean kontsumitzeko dituen deialdiak baliogabe utziko ditu eta bajaren berri helaraziko dio Administrazioari, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez diezazkion. Baja eskaera hilaren 10aren aurretik jaso ezean, hilabete horretako kuota kontutik pasako zaio ikasleari.

Ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio, inola ere, itzuliko ikasleari.

### **2. IKASTEN JARRAITZEKO DENBORA AGORTZEAREN ONDORIOZ DATORREN BAJA**

Testu honetan jasotako arauen arabera ikasten jarraitzeko denbora agortzearen ondoriozko nahitaezko baja gertatzean, Idazkaritza Akademikoak baja horren berri helaraziko dio Administrazioari, hurrengo hilabetetik aurrera, ikasleak ordaintzeko dituen matrikula-zatiak kobra ez diezazkion.

Aurreko kasuetan bezalaxe, ordura arte ordaindutako kopuruak ez zaizkio inola ere, itzuliko ikasleari.

## **VII. ESKOLA EGUTEGIA**

Dagokion titulazioko Gradu Lan Taldeak proposatzen du eskola egutegia: ikasturtearen hasiera, oporraldiak, jaiegunak eta ikasturtearen amaiera noiz izango diren. Ondoren, Kontseilu Errektoreak onetsi egin behar du. Datuok Fakultateko webgunean argitaratuko dira, ikasleek horren berri izan dezaten.

Aurreikusiriko egutegi-marko horretan, seihilekoetan edo hiruhilekoetan banatuko da lana, eskola ikasturte bakoitzeko titulazioek hartuko duten erabakiaren arabera. Horretarako, lehen seihilekoa irailan hasi eta urtarrilean amaituko da; bigarrena otsailan hasi eta ekainean amaituko da. Hiruhilekoak, berriz, oporraldien arteko eskola-tarteekin bat etorriko dira, hots: iraila–abendua (lehen hiruhilekoa), urtarrila–martxoa/apirila (bigarren hiruhilekoa), martxoa/apirila–ekaina (hirugarren hiruhilekoa).

Epe horietan integratuak daude bai garatzea aurreikusita dauden hezkuntza-jarduerak, baita gaitasunak eskuratzean ikasleak egiten duen aurrerakuntza neurtzeko baliatuko diren ebaluazio mekanismoak ere. Arautegi honetan xedaturiko bigarren deialdia ekain-uztailean egingo da.

## VIII. IKASKETEN EBALUAZIOA ETA IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK

### 1. EBALUATZE SISTEMA

Ebaluazio-jarduera desberdinen arteko konbinazio orekatu baten bitartez etekina eta ikaskuntza baloratuko da.

Ebaluazio horrek, aurreko ataletan adierazitako alderdiekin koherentziaz, kasuan kasuko titulazioa definitzean erreferentzia gisa hartu diren Konpetentzia Orokorrekin eta Espezifikoekin loturik garatu diren ezagutza, trebezia eta jarrerak lehenetsiko ditu.

Ikasleak daraman materia bakoitzaren ebaluazio jarraitua eta ikasturte amaierakoa egingo dira.

Ikasturte berean materia bakoitzak bi ebaluazio-deialdi izango ditu.

Ikasleak ebaluazioa eta kalifikazioak berrikustea eska dezake. Berrikusketa epeak eta prozedura Graduoko Batzordeak ezarriko ditu.

### 2. KALIFIKATZE SISTEMA

Materiak 0 eta 10 zenbakien (dezimal bakarrez) arteko puntuen bitartez kalifikatuko dira. Horretan, 5 eta 10 puntu (biak barne) bitarteko kalifikazioa lortzen duenak materia gaindituko du, eta 5 puntura iristen ez denak ez du gaindituko.

### 3. IKASTEN JARRAITZEKO ARAUAK ETA TITULAZIOZ ALDATZEKO ARAUAK

**A.** Gradua lau ikasturtetan egituratua dago; horietako lehen bietan sartzen da oinarritzko formazio osoa. Ikasturteen arteko igarotzea ondoko arauen bidez erregulatuko da:

- a) Lehenengo maila: ikasle sartu berriek, matrikulatu diren kreditu guztien % 20 gainditu behar dute gutxienez, lehenengo ikasturtean, HUHEZIn ikasten segituko badute. Aparteko gorabeheretan eta ikasleak hala eskaturik, kasuan kasuko Graduoko Batzordeak salbuespenak jarri ahal izango dizkio arau honi.
- b) Bigarren maila: bigarren mailara igaro ahal izateko, lehen mailako 42 ECTS gainditu beharko ditu ikasleak (non eta 60 ECTS baino gutxiagotan matrikulatu ez den, V. puntuan, salbuespenezko kasuei dagokienean xedatu bezala).
- c) Hirugarren maila: ikaslea hirugarren mailan sartu ahal izango da lehen edota bigarren mailetatik gehienez ere 12 ECTS ekarriz gero.  
Ikasleak ezingo du 3. mailara pasatu lehenengo mailako *Idatzizko komunikazioa* materia eta/edo 2. mailako 2.4 *Ikus-entzunezko lengoia* materia gainditu gabe.
- d) Laugarren maila: maila honetan sartu ahal izateko, gehienez aurreko mailetak 12 ECTS izango ditu.

**B. Deialdi kopurua:** ikasleak, materia bakoitzeko, gehienez sei deialdi izango ditu, ondoko salbuespenez:

- Gradu-tituluan ondoko materietan lau deialdi izango dira, gehienez:
  - o Proiektua deitzen diren Materiak.
  - o Praktikak eta Gradu Bukaerako Lana.

Gradu Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketa plana osatzen duten gainerako materia guztiak gaindituak edukitzea.

Deialdiak agortzen dituzten ikasleek ezingo dute ikasketa hauek jarraitu. Halere, onartua izanez gero, beste ikasketa batzuei ekin ahal izango die Unibertsitate honetan beste behin bakarrik.

**D. Ebaluazio deialdiari uko egitea:** Deialdi kopurua zenbatzerakoan ikaslea aurkezten ez denekoa ere kontuan hartzen da. Ez, ordea, ikasleak ebaluazio deialdiari uko egiten dioenean. Deialdiari uko egiteko honako arauak jarraituko dira:

- Justifikatu beharrik gabe materia bakoitzeko gehienez bat aurkeztu ahal izango du, (kalifikazio aktetan "KE" gisa jasoko da). Materia bakoitzean ukoa aurkezteko epea Idazkaritza Akademikoak bidalitako mezu baten bidez jakinaraziko da.
- Gaixotasun-arazoak direla-eta edo beste egoera ezohiko batean ere, ukoa aurkeztu ahal izango da (kalifikazio aktetan "KU" gisa jasotzen dena) eta dagokion Gradu Batzordeak erabakiko du.

Eskubide hauetaz baliatzeko, ikasleak eskaria egin beharko du idazkaritza birtualaren bidez. Deialdiari uko egiteak suposatzen du deialdi horretan ezin dela aurkeztu eta ez duela kalifikaziorik izango; hala ere, ohikoa den legez, materia horren deialdiari dagokion diru kopurua ez zaio itzuliko.

**E. Deialdiak aurreratzeko aukera:** ikasleek GBL materiako deialdia aurreratzeko eskubidea izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Laugarren mailako ikaslea izatea eta GBL materiaren bigarren aldiz matrikulatua egotea.
- b) Gradua amaitzeko GBLa bakarrik falta izatea.
- c) Deialdi hauek aurreratu ahal izango ditu:
  - Irailetik otsailera.
- d) Ikasturte bakoitzean behin bakarrik eskatu daiteke deialdi aurrerapena. Eskaria Idazkaritza Akademikoan egin beharko da, ikasturte bakoitzeko azaroak 15a baino lehen.
- e) Gradu Batzordeak erabakiko du kasu bakoitzean deialdi aurrerapena onartzen duen ala ez.
- f) Ezin da UKOrrik eskatu aurreratutako deialdietan.

#### **4. KOPIATZE ETA PLAGIOEN KASUAK**

Kopiatzea edota plagio egitea ez da zilegi ez ikasleen jarrera pertsonal moduan ezta ere etorkizunean komunikazioko profesionala izan nahi duen pertsona batengan. Hori dela eta, kopiatzen harrapatzen den ikasleari, materia hori guztia hurrengo deialdirako geldituko zaio.

Ikasle batek behin baino gehiagotan kopiatu duela frogatzen bada, edota materia batean baino gehiagotan kopiatzen harrapatzen bada, Gradu Batzordeak erabaki beharko du ikasle horrek Fakultatean ikasten jarraitu ahal izango duen edo kanporatua izango den, aldi baterako edo betirako.

Plagioen kasuan: ikasleak lan baterako edozein motatako euskarri analogiko zein digitaletik zati adierazgarriak eta nabariak erabiltzen baditu, haien jatorria era egoki eta estandarizatu batean aipatu gabe, Gradu Batzordeak erabaki beharko du ikasle horrek Fakultatean ikasten jarraitu ahal izango duen edo kanporatua izango den. Lehenengo kasuan, konprometitutako materia guztiak hurrengo deialdirako geldituko zaizkio.

## **IX. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA**

### **MUGIKORTASUN PROGRAMEN KUDEAKETA**

Mugikortasun programen planifikazioa eta kudeaketa HUHEZIKo Nazioarteko Harremanen Arduradunaren eskumenekoa da. Laburki eta era ez-sekuentzialean zehaztuko ditugu bertako programan diren egitekoak:

- Ikasleen artean nazioartean aritzeko eskaintza banatzea eta ikasleek beren zaletasunak agertuko dituzten Izen-emate Orriak betetzea.
- Espediente akademikoaren, aukeratutako tokian egin beharreko ikasketen eta ikaslearen zaletasunen arabera lekuak esleitzea.
- Aurretiazko tramite administratiboak formalizatzea.
- Egonaldia atzerrian: Learning Agreement deitutako dokumentua betetzea.
- ECTS kredituak aintzat hartu eta metatzea, atzerriko erakundeetan prestakuntza-epea amaitutakoan, kanpoko unibertsitatean erdietsitako emaitzak ikusirik.
- Ezingo dute Mugikortasun programetan parte hartu Egokitzapen Ikastaroak ikasturte batean burutzen dituzten ikasleek.

### **KREDITUAK AINTZAT HARTZEKO SISTEMA (UNIBERTSITATEEN ARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAK)**

Unibertsitateen arteko mugikortasun programen babesean, atzerrian egonaldiak egingo dituzten ikasleen kredituen aintzakotzat hartze eta metatzeko sistema hurrengo baldintzetan oinarritzen da:

- Ikasleak eta dagokion Gradu Batzordeak hitzartuko dute ikasleak zein materia egingo dituen bere egonaldian eta zein materia hartuko zaizkion aintzat Fakultate honetara ikastera itzultzen denean.
- Proposamen hori Learning Agreement-en jasoko da.
- Ikasleak jatorrizko Learning Agreement aldatzea proposa lezake, baldin eta aldatze horren arrazoiak agertzen baditu.
- Dagokion Gradu Lan Taldeak proposamena aski arrazoituztat jotzen badu, aldaketa onartuko du.
- Ikasleak atzerriko egonaldia amaitutakoan, Fakultate honetan egin ez dituen kredituak egindakotzat aitortuko zaizkio eta atzerriko erakundeetan (Learning Agreement-en arabera) erdietsi duen kreditu-kopuruaren antzeko eskola-karga izango du bertan.
- Aurreko ataletan xedatutakoaren arabera aitorturiko kredituak zenbakiz kalifikatuko zaizkio, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Atzerriko egonaldiengatik aitortuko diren kredituei dagozkien materien kalifikazioa, materietako bakoitzean ikasleak erdietsitako kalifikazioa bider horietako bakoitzari izendaturiko kreditu kopuruaren arteko batez besteko haztatua izango da.
- Goian adierazi bezala, aitorturiko tituluak ere jasoko dira ikaslearen espediente akademikoan. Horrelakoetan, jatorrizko materiei dagokien informazio hau adierazi beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofiziala(k) eta hori(ek) zein adarretakoak diren; gaituriko ikasgai edo materiak eta kreditu-kopurua, eta erdietsitako kalifikazioa.
- Tituluaren Gehigarri Europarrean zehazki adieraziko dira, horretarako berriaz agertzen den atalean, ikasleak eginiko mugikortasun egonaldiak: unibertsitatea(k), ikasgai ofizialak eta horiek zein adarretakoak diren; gaituriko ikasgai edo materiak eta kreditu-kopurua, eta erdietsitako kalifikazioa.

## **X. MATRIKULAREN ORDAINKETA**

Ikasturteko matrikularen zenbatekoa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Kontseilu Errektoreak ezarriko du ikasturte bakoitzaren hasieran.

Kopuru hau honela banatuko da: matrikula aurrerakina + urritik ekainera bitarteko 9 kuota. Matrikula egiterakoan matrikula aurrerakina ordainduko da. Kuoten karguak, ostera, hilaren 15ean egingo dira, urriaren 15ean hasita. Ordaindutako diru kopura ez da inolaz ere itzuliko.

Bestalde, aurreko urtetatik gainditzeke dauden ikasgaiak Fakultateko arautegi akademiko administratiboari jarraiki, kuotekin batera, kredituak ikasturte horretan duen prezioan ordainduko dira.

30 kreditu baino gutxiagotan matrikulatu diren ikasleek, berriz, matrikula aurrerakinaren parte proportzionala ordainduko dute ikasturte hasieran, aurrerakin osoa ordaindu beharrean.

Azkenik, bakarrik Gradu Bukaerako Lana (GBL) duten ikasleei ordainketak 5 hilabetetan planifikatuko zaizkie, otsailean proiektua aurkeztu eta ikasketak bukatzeko aukera izan dezaten.

## **XI. IKASKETETARAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK**

### **1.- Ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorra**

#### **Eusko Jaurlaritzako deialdiak:**

- Unibertsitate mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka.
- Udan atzerrian hizkuntza ikastaroak egiteko beka.
- Erasmus programaren eta nazioartean mugitzeko beste unibertsitate programa batzuen esparruko beka.
- Errendimendu handiko ikasleak saritzeko bikaintasun akademikoko beka.
- Departamentuetan Heziketa Jarduera eta Laguntzarako Lankidetzak beka.

#### **Hezkuntza Ministerioa**

- Beka orokorra eta mugikortasun beka.
- Udan atzerrian hizkuntza ikastaroak egiteko beka.

#### **Beka eta diru-laguntza propioak**

- Prezio Publikoen salbuespen eta murrizketen laguntza.
- Batxilergoan ohorezko matrikula ateratzeagatik laguntza.
- Biteri Ikastetxe Nagusiko egoiliar beteranoei laguntza.
- Departamentuetan Heziketa Jarduera eta Laguntzarako beka.

### **2.-Alecop**

Fakultateko ikasle orok aukera du, horrela nahi izanez gero, lan ordaindua egiteko ikasle osatuta dagoen Alecop izeneko enpresan. Horretarako, Alecopen bertan edo Fakultateko Idazkaritza Akademikoan eskatu inprimakia. Inprimakia beteta entregatu ondoren Alecopetik deitu arte itxaron behar da. ALECOP - Tel. 943 712405

### **3.- Fakultatean bekadun**

Ikasturte hasieran, Fakultateko departamentuetan bekadun aritzeko aukera zabaltzen zaie ikasleei. Deialdia, Fakultateko kortxoetan eta korreo elektronikoko bidez bidalitako mezuz publikatzen da; oinarriak administrazioan daude eskuragai.

### **4.- Eskola Asegurua**

Eskola Asegurua 1953ko uztailaren 17ko Legeak sortzen du (abuztuaren 18ko EBO) ikasleen onurarako gizarte-aurreikuspena bermatzeko. Helburua da ikasleei babes eta laguntza eman ahal izatea, nola nahi gabe gertatutako istripuetan zein aurreikusitako egoera txarretan.

Eskola Aseguruaren aplikaziorako adin muga 28 urtekoa da. 28 urtetik gorako ikasleei aseguru berezi bat egiteko aukera ematen zaie, bere kostua fakturatuz.

Eskola Aseguruaren ondorioetarako, ikaslearen izaerarekin zuzen zein zeharka loturiko jardueretan ikasleak jasan lezakeen edozein gorputz-kalte hartuko da istripuztat; esate baterako, kirol-jarduera, batzar, ikasketa-bidaia, praktika edo gradu bukaerako lana edo antzeko jardura akademikoetan, baldin eta jardura horiek unibertsitateak antolatutakoak badira.

### **5.- Bekabide**

BEKABIDE Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bertako ikasleei eskaintzen dien zerbitzua da, eta instituzioak duen bokazio soziala bideratzen du. Helburua da Huhez in ikastea nahi duen ikasle orok ikasteko eskubidea izatea arrazoi ekonomikoak oztopo izan gabe. Programa hau langile, ikasle eta enpresa kolaboratzaileen solidaritateari esker eraman daiteke aurrera.

## **XII. ESPARRUAK ETA ESKUDUNTZAK**

Arautegi honetan agertzen ez diren kontuez edota zabaltzea, sakontzea, zehaztapenez argitzea, etab. eskatzen duten kontuez bidezko jotzen dituen arautegiak egin ahal izango ditu HUHEZIKO Gradu Lan Taldeak.

HUHEZIKO Gradu Lan Taldeak, Arautegi honetan xedatutakoaren babespean, Gradu unibertsitate-ikasketetan jardura akademikoa normal gara dadin zainduko du eta Hezkuntza Komunitatearen asebetetzerako bidezkotzat jotzen dituen hobekuntza-proposamenak egingo ditu.

Hemendik aurrera Arautegi honen aldaketak egitea HUHEZIKO Gradu Lan Taldearen eta ez beste inoren eskuduntza da, bertako kideren batek hala eskaturik.

## I. ERANSKINA- Oinarrizko Formazioko Materiak

Gizarte eta Zuzenbide Zientzien adarreko, bertako tituluetan:

### Gradua IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN (2009ko Plana)

MATERIA	MOTA	ECTS	ESPARRUA
Irudiaren teoria	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko hedabideen historia	OF	6	Komunikazioa
Argazkigintza eta irudiaren lanketa digitala	OF	6	Komunikazioa
Komunikazioaren oinarriak	OF	6	Komunikazioa
Konpetentzia digitalak eta informaziozkoak	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko lengoia	OF	6	Komunikazioa
Irudiaren diskurtsoa eta deontologia	OF	6	Komunikazioa
Arte garaikidea	OF	6	Komunikazioa
Zinemaren historia	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko generoak	OF	6	Komunikazioa
<b>GUZTIRA</b>	<b>OF</b>	<b>60</b>	

### Gradua IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN (2014ko Plana)

MATERIA	MOTA	ECTS	ESPARRUA
Komunikazioaren teoria eta egitura	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko komunikazioaren historia	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko dokumentazioa	OF	6	Komunikazioa
Argazkigintza eta irudiaren lanketa digitala	OF	6	Komunikazioa
Idatzizko komunikazioa	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko komunikazioaren zuzenbidea	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko kultura	OF	6	Komunikazioa
Ikus-entzunezko lengoia	OF	6	Komunikazioa
Zinemaren eta telebistaren teoria eta analisisa	OF	6	Komunikazioa
Identitatea, kultura eta informazioaren gizartea	OF	6	Komunikazioa
<b>GUZTIRA</b>	<b>FB</b>	<b>60</b>	



## II. ERANSKINA. Lanbide Heziketako kredituak aitortzea.

### 1.-IKO Graduan aitortutakoak:

- 2013/14 ikasturtean matrikulatu ziren ikasleei aitortutako materiak eta ECTSak (2009ko Plana):

Familia/GM Zikloa	Ikasgaiak	Graduan Aitortutako materiak	ECTS	Maila
IRUDIA ETA SOINUA IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUEN ETA IKUSKIZUNEN ERREALIZAZIOA	Zinema eta bideoko errealizazioa (290 ordu)	Komunikazioaren oinarriak	6	1.maila
	Ikus-entzunezkoen muntaia-edizioa eta produkzio ondoko lanak (260 ordu)	Ikus-entzunezko teknologia	4	1.maila
		Ikus-entzunezko lengoia	6	2. maila
	Ikus-entzunezko komunikazioa eta adierazpena (150 ordu)	Errealizazioa ikus-entzunezko proiektuetan	4	3. maila
	<b>GUZTIRA</b>	Praktikak	12	3.maila
			<b>32</b>	
IRUDIA ETA SOINUA IRUDIA ARGIZTATU, HARTU ETA TRATATZEA	Imagen fotográfica (256 ordu)	Argazkigintza eta irudiaren lanketa digitala	6	1.maila
	Imagen audiovisual (198 ordu)	Ikus-entzunezko teknologia	4	1.maila –
	Medios y lenguajes de comunicación (118 ordu)	Komunikazioaren oinarriak	6	1.maila
		Praktikak	12	3.maila
	<b>GUZTIRA</b>			<b>28</b>
IRUDIA ETA SOINUA IKUS- ENTZUNEZKOETARAKO ETA IKUSKIZUNETARAKO SOINUA	Comunicación audiovisual y expresión sonora (150 ordu)	Komunikazioaren oinarriak	6	1.maila
		Praktikak	12	3.maila
	<b>GUZTIRA</b>			<b>18</b>
IRUDIA ETA SOINUA IKUS-ENTZUNEZKO ETA IKUSKIZUNEN PRODUKZIOA	Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak (165 ordu)	Ikus-entzunezko teknologia	4	1.maila
	Ikus-entzunezko proiektuen plangintza (231 ordu)	Produkzioa ikus-entzunezko proiektuetan	4	3.maila
		Praktikak	12	3.maila
	<b>GUZTIRA</b>			<b>20</b>
IRUDIA ETA SOINUA 3D ANIMAZIOAK, JOKOAK ETA MULTIMEDIA ELKARRERAGILEAK	Ikus-entzunezko 2D eta 3D animazio- proiektuak (100 ordu)	Grafismo lantegia	4	3. maila
	2D eta 3D elementuen animazioa (264 ordu)	Ikus-entzunezko animazioa	4	3. maila
	<b>GUZTIRA</b>			<b>8</b>

- 2014/15 ikasturtean matrikulatzen diren ikasleei aitortutako materiak eta ECTSak (2014ko Plana):

Familia/ Ciclos de grado superior	Asignaturas	Materias de Grado	ECTS
IMAGEN Y SONIDO REALIZACIÓN DE PROYECTOS DE AUDIOVISUALES Y ESPECTÁCULOS	Realización en cine y vídeo (290 horas)	Realización audiovisual	3
	Montaje/edición y postproducción de audiovisuales (260 horas)	Tecnología audiovisual	4
		Lenguaje audiovisual	6
	Formación en centros de trabajo (360 horas)	Prácticas en empresas	12
	<b>TOTAL</b>		
IMAGEN Y SONIDO ILUMINACIÓN, CAPTACIÓN Y TRATAMIENTO DE LA IMAGEN	Imagen fotográfica (256 horas)	Fotografía y edición digital de la imagen	6
	Imagen audiovisual (198 horas)	Tecnología audiovisual	4
	Iluminación de espacios escénicos (258 horas)	Dirección de fotografía e iluminación I	3
		Dirección de fotografía e iluminación II	3
	Formación en centros de trabajo (360 horas)	Prácticas en empresas	12
<b>TOTAL</b>			<b>28</b>
IMAGEN Y SONIDO SONIDO PARA AUDIOVISUALES Y ESPECTÁCULOS	Radio (265 horas)	Proyecto: Creación radiofónica	6
	Sonido en producciones audiovisuales (265 horas)	Teoría y técnica del sonido I	3
		Teoría y técnica del sonido II	3
	Formación en centros de trabajo (360 horas)	Prácticas en empresa	12
<b>TOTAL</b>			<b>24</b>
IMAGEN Y SONIDO PRODUCCIÓN DE AUDIOVISUALES Y ESPECTÁCULOS	Medios técnicos audiovisuales y escénicos (165 horas)	Tecnología audiovisual	4
	Planificación de proyectos audiovisuales (231 horas)	Producción audiovisual	3
	Formación en centros de trabajo (360 horas)	Prácticas en empresas	12
	<b>TOTAL</b>		
IMAGEN Y SONIDO ANIMACIONES 3D, JUEGOS y ENTORNOS INTERACTIVOS	Proyectos de animación audiovisual 2 y 3D (100 horas)	Animación gráfica I	3
	Diseño, dibujo y modelado para animación(198 horas)	Animación gráfica II	3
		Animación de elementos 2 y 3D (264 horas)	Técnicas de animación
	<b>TOTAL</b>		

### **III. ERANSKINA. UNIBERTSITATEAK SUSTATUTAKO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA ETA JARDUERETAN PARTE HARTZEAGATIK GRADUKO IKASKETETAN KREDITUAK AITORTZEKO ARAUTEGIA**

#### **SARRERA**

2010eko 861 Errege Dekretuak, uztailaren 2koa, xedatzen du, Gradu ikasleei 6 ECTS onartu ahalko zaizkiela Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik. Ekintza eta jarduera hauek mota honetakoak izan daitezke:

- Ikasleen ordezkartzakoak
- Kirol-ekintzak
- Unibertsitateko kultur ekintzak
- Elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak

Honela:

«8. De acuerdo con el artículo 46.2.i) de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, los estudiantes podrán obtener reconocimiento académico en créditos por la participación en actividades universitarias culturales, deportivas, de representación estudiantil, solidarias y de cooperación. A efectos de lo anterior, el plan de estudios deberá contemplar la posibilidad de que los estudiantes obtengan un reconocimiento de al menos 6 créditos sobre el total de dicho plan de estudios, por la participación en las mencionadas actividades.»

Hori dela eta, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) ekintza eta jardueren eskaintza zabala prestatu du Gradu ikasleei eskaintzeko. Ekintza eta jarduera hauen bitartez, kredituak onartzeaz gain, HUHEZIK ondoko balioak sustatu nahi ditu ikasleak barnera ditzaten:

- Kooperazioa
- Parte-hartzea, misioarekin konpromisoa
- Giza erantzukizuna, ingurugiroarekin inplikazioa
- Berrikuntza
- Formazioa, pertsonaren garapena

Horiez gain, euskararen erabilera eta berdintasuna ere sustatu nahi dira. HUHEZIK, bere ahalmenaz baliatuta, arau eta prozedurak ezarri behar ditu bere kudeaketaren arlo desberdinetako zereginak tramitatu ahal izateko.

Horregatik honako arautegi hau onartu du:

## XEDAPENAK

**Lehena.-** Ikus-entzunezko Graduko lehen mailan matrikulatutako ikasleek kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute unibertsitateko kultur eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkartzan aritzeagatik. (2014ko Planekoak)

Unibertsitatean ikasten aritu diren bitartean gauzatutako ekintzak izan beharko dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dituzte horien truke.

Araudi honetan jasota daude jardueren zerrenda eta bakoitzagatik urtean lor daitekeen gehieneko kreditu kopurua. Dena den, jarduera batengatik behin bakarrik eskatu ahalko dira kredituak.

**Bigarrena.-** Ikasle-ordezkaritzan aritzeagatik kredituak eskuratzeko ikasle ordezkari edo ordezkariaorde gisa aritu beharko du ikasleak eta –dagokionean- kudeaketa organoetan parte hartu, honela:

- Kontseilu Errektorean ikasleen ordezkari aritu izanagatik. Kontseilu Errektorearen bileren %75era joan beharko du eta Batzar Orokorraren bileretara. Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak organo honen bileretan parte hartu duten ikasleen zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO idazkari akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Gelako ordezkari funtzioak ikasturte batean gutxienez betetzeagatik. Titulazioko koordinatzaileak ordezkari izan direnen zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO idazkari akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Euskara Batzordeko ordezkari izateagatik. Euskara Batzordeko idazkariak ordezkari izan direnen zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO idazkari akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan. Euskara Batzordeak antolatzen dituen bileren %75era joan beharko du eta Batzorde honek sustatzen eta bultzatzen dituen ekintzak antolatu edota hauetan parte hartu.
- Bizitza Unibertsitario Batzordeko kide izateagatik. Bizitza Unibertsitario Batzordeko idazkariak ordezkari izan direnen zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO idazkari akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.

**Hirugarrena** Kirol-ekintzengatik kredituak aitortzeko, interesdunek MUko kirol koordinatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Kirol-ekintzak dokumentu honetan zehaztutako baliokidetasunak izango ditu kontuan. Kirol jarduerengatik gehienez 3 ECTS metatu ahal izango dira.

**Laugarrena** Huhezikoko kultur ekintzen antolaketan laguntzeagatik, zehazki ekintza hauetan:

- Huhezinema. Huhezinemaren koordinatzaileak antolaketan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO idazkari akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Literatura-astea. Literatur Astearen koordinatzaileak antolaketan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Bizitza Unibertsitarioa Batzordeak kudeatutako ekintzen antolaketan parte hartzeagatik. Bizitza Unibertsitario Batzordeko idazkariak antolaketan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.

- Komunikaldiak. Komunikaldietako koordinatzaileak antolaketan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Gradu Lan Taldeak ikasturte bakoitzerako zehaztutako beste edozein ekintza.

**Bosgarrena** Prestakuntzarako kultur ekintzetan parte hartzeagatik: Huhezik eskolaz kanpo antolatutako eta bultzatutako ikastaro, mintegi, ekintza eta halakoetan parte hartzeagatik.

- Huhezinema. Huhezinemaren koordinatzaileak parte hartu duten ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan
- Literatura-astea. Literatur Astearen koordinatzaileak antolaketan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan
- Komunikaldiak. Komunikaldietako koordinatzaileak parte hartu duten ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Gradu Lan Taldeak ikasturte bakoitzerako zehaztutako beste edozein ekintza.

**Seigarrena** Huhezin bekadun edo laguntzaile aritu izana.

- MU Telebistan. MU Telebistako koordinatzaileak bekadun edo laguntzaile lanetan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Huheziko Zerbitzuen lan-taldean ikasturte batean bekadun aritu izana. Lan- taldearen koordinatzaileak bekadun edo laguntzaile lanetan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Eusko Jaurilaritzak deitutako laguntza-beketan bekadun aritu izana Huheziko ikerketa talde batean. Ikerketa taldearen arduradunak bekadun edo laguntzaile lanetan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.
- Erasmus-laguna. Nazioarteko koordinatzaileak bekadun edo laguntzaile lanetan aritu diren ikasle-zerrenda bidaliko dio HUHEZIKO Idazkari Akademikoari, honek informazio hori ikasle parte-hartzaileei kredituak aitortzeko erabil dezan.

**Zazpigarrena** HUHEZIKO Idazkari Akademikoak, ikasleak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, hautazko kredituak aitortzeko erabakia emango du, kreditu horiek ikaslearen espedientean sar daitezzen. Horretarako, ikasleak araudi honetan zehaztutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

**Zortzigarrena** 2014-2015 ikasturtean Gradu lehen mailako ikasleek eskatu ahal izango dute ekintza eta jardura hauengatik kredituak aitortzea. 2015-2016an, lehen eta bigarren mailetakoe; 2016-2017an lehen, bigarren eta hirugarren mailetakoe; eta 2017-2018an gradu ikasle orok.

Arautegi honek ez du atzera eraginik. Beraz, 2014-2015 aurretiaz garatutako jarduerak eta parte hartutako ekintzek ez dute kredituak aitortzeko eskubiderik emango.

**Bederatzigarrena** Kredituen aitortza-eskaria 3 ECTSko blokeetan egingo da, eta laugarren mailako matrikula egitean gauzatuko da. Aitortutako kreditu hauen ordeztasunak hautazko ikasgaien bat/batzuk egin beharrik ez du izango. Titulu koordinatzaileek jakinaraziko diete ikasleei egin gabe utzi daitezkeen ikasgaien zerrenda.

**Hamargarrena.** Kredituen aitortzak ez du matrikularen zenbatekoan inongo eraginik izango.

**Hamaikagarrena** Arautegi honetan xedatzen ez diren kasuetarako HUHEZIKo Zuzendari Akademikoak izango du erabaki eskumena, Gradu Titulu-koordinatzaileen taldearen iritzia jaso eta hauekin erabakiak adostu ondoren.

**ESKARI-ORRIA.**

**Izen-abizenak:**

---

**Titulazioa:**

---

Ekintza eta jarduera hauetan parte hartu dut:

1- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

2- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

3- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

4- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

5- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

6- .....

Noiztik noiz arte: .....

Datua egiaztatzeko erreferentziako pertsona: .....

Dokumentua erantsi

*Data:*

*Eskatzailearen sinadura:*

UNIBERTSITATEAK ANTOLATUTAKO KULTUR EKINTZAK					
SOZIOKULTURA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	EGIAZTAGIRIA
<b>Literatura Astea</b>	Literaturaren gaineko ezagutza handitu eta literaturaren plazera konpartitzea helburu duten jardunaldiak	Emanaldietan eta hitzaldietan parte hartu, eta galdetegia bete.	0,5	12 ordu	Literatura Asteko koordinatzaileak / Graduko Lan Taldeak sinatutako ziurtagiria
<b>Huhezinema</b>	Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko ikasleek antolatutako zinema jaialdia; bertan, ikasleek beraiek egindako lanak zein kanpotik jasotakoak erakusten dira	Emanaldietan eta hitzaldietan parte hartu, eta galdetegia bete.	0,5	12 ordu	Huhezinemako koordinatzaileak / Graduko Lan Taldeak sinatutako ziurtagiria
<b>Komunikaldia</b>	Komunikazioaren esparruarekin lotuta antolatzen den egun bateko jardunaldia, oro har gai monografiko baten gainean	Jardunaldietan parte hartu eta galdetegia bete	0,5	12 ordu	Komunikaldia koordinatzaileak / Graduko Lan Taldeak sinatutako ziurtagiria
<b>Unibertsitate bizitza</b>	Unibertsitate bizitza sustatu eta girotzeko ekitaldiak antolatu	Ekitaldiak antolatu eta dinamizatu.	0,5	12 ordu	Unibertsitate bizitzako arduradunak

IKASLEEN ORDEZKARITZAKOAK					
IKASLEEN ORDEZKARITZA	DESKRIBAPENA	BETEBEHARRAK	ECTS	DEDIKAZIOA	EGIAZTAGIRIA
<b>Euskara Batzordea</b>	Euskara Batzordeak antolatzen dituen bileren parte eta Batzorde honek sustatzen eta bultzatzen dituen ekintzak antolatu edota hauetan parte hartu	Bileretan parte hartu eta batzordeak sustatzen eta bultzatzen dituen ekintzak antolatu edo parte hartu	1,5	Hilero bilera 1	Euskara Batzordeko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
<b>Ikasle ordezkari eta ordezkariorde</b>	Ordezkarri edo ordezkariorde gisa ordezkari lanak egiteagatik. Ikasle Kontseiluan eta Graduko Lan Taldean parte hartzea	Ikasleen iritziak entzun, jaso eta, dagokionean, kudeaketa organoetara helarazi.	1,5	Hileko bilera 1, eta ordezkari dagokion dedikazioa	Graduko Koordinatzaileak
<b>Kontseilu Errektorean ordezkari</b>	Kontseilu Errektorean parte hartzeagatik	Parte-hartze aktiboa izan kontseiluan	1,5	Hilero bilera 1	Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak bidalitako zerrenda

<b>KIROL JARDUERAK</b>					
<b>KIROL JARDUERAK</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>	<b>BETEBEHARRAK</b>	<b>ECTS</b>	<b>DEDIKAZIOA</b>	<b>EGIAZTAGIRIA</b>
<b>Ikastaroak</b>	Kirolaren praktikarekin, osasunarekin, elikadura eta oro har gai hauekin lotutako informazioa	Tertulia, ikastaro, asteroko etengabeko lana	1	Guztira 20 ordu	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
<b>Txapelketak</b>	HUHEZIKo barne txapelketetan parte hartzea	Parte hartzea	0,5	3- 8 egun artean	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
	MUko txapelketak	Parte hartzea, HUHEZI ordezkatzea	0,5	Egun bat	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
	Euskadiko unibertsitate kirol txapelketa	Parte hartzea, HUHEZI ordezkatzea	0,5	Egun bat	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
	Herri kirol txapelketan parte hartzea, kirolen bidez euskal kultura garatzen laguntzeko	Parte hartzea, HUHEZI ordezkatzea	0,5	Egun bat	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
	Espainiako Unibertsitate kirol txapelketa	Parte hartzea, HUHEZI ordezkatzea	1	Bi edo hiru egun	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria
<b>Kirol jarduerako garatzeko ikasle laguntzaile</b>	Barne txapelketako arbitro-lanak egitea, ikasleen parte-hartzea kontrolatu.	Balioen garapena	1	10-15 partida 20-25 partida	MU Kirolak-eko koordinatzaileak sinaturiko ziurtagiria



**Araudi hau Huheziko Graduko Lan Taldeak**

*2010eko martxoaren 22an onartua*

*2010eko ekainaren 22an moldatua (VIII. D puntua, bigarren deialdiaren ukoa)*

*2013ko urtarrilaren 16an moldatua (Lanbide Heziketako kredituen aitormena)*

*2013ko apirilaren 30ean moldatua (Ikasten jarraitzeko Arauak. 4. Maila)*

*.....2013ko irailaren 4an moldatua (GBLko deialdiak aurreratzeko aukera eta Haur Hezkuntza Graduan aitortuko diren Lanbide Heziketako materien aldaketa)*

*....2014ko uztailaren 3an moldatua (IKO araudia eta HH eta LH Araudiak desberdindu dira)*

*....2015eko otsailaren 19an moldatua (Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekintza eta jardueretan parte hartzeagatik graduko ikasketetan kredituak aitortzeko arautegia)*

*2015eko irailaren 17an moldatua (Antolaketaberriragokitua Graduko Mahaiarenordez Graduko Lan Taldeak eta Ebaluazio eta Kalifikazio berrikusteko prozeduraz haztuta)*

*2018ko irailaren 3an Graduko Lan Taldeak onartuta*